

## **DOKTOREGO AURREKO LAGUNTZEN DEIALDIA,** **UNIBERTSITATEEN MINISTERIOARENA:** **FPU 2022 PROGRAMA**

### ***Laguntzen ezaugarriak:***

Unibertsitate Ministerioak doktorego-programetako ikerkuntza-prestakuntzarako laguntzak emateko deialdia egin du, doktore-titulua lortzeko eta ezagutza zientifikoaren edozein arlotan unibertsitateko irakaskuntza-gaitasunak eskuratzeko; etorkizunean doktore berriak sar daitezen goi-mailako hezkuntzako eta ikerketa zientifikoko Espainiako sistematan.

900 laguntza deitzen dira, eta horietatik 45 % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten ikertzaileentzat gordeko dira.

### ***Kontratuen ezaugarriak:***

Doktorego aurreko kontratuek gehienez 4 urte iraungo dute (6 urte, desgaitasuna duten onuradunen kasuan) eta onuradunen eta UPV/EHUren artean egingo dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluari jarraituz.

Laguntzak emateko, doktorego aurreko kontratuek gutxienez urtebeteko iraupena izango dute.

Onuradunek **1.230,08 euro gordin jasoko dituzte hilean lehenengo bi urteetan, 1.317,95 euro gordin hilean hirugarren urtean eta 1.647,44 euro gordin hilean laugarren urtean.** Urte bakoitzean 12 hileko soldata eta aparteko bi ordainsari emango dira.

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

#### **Lehen fasea:**

**Berria: fase bakarra izapidean**

**GARRANTZITSUA:** Jarraian zehazten diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea ixteko datan bete beharko dira.

#### **Baldintza akademikoak**

- Doktore titulurik ez izatea.
- UPV/EHUren doktorego programa batean matrikulatua egotea 2022/2023 ikasturtean.
- Edo, bestela, master tituluaren jabe izatea edo 2022/2023 ikasturtean matrikulatuta egotea 2023/2024 ikasturtean doktorego programa baterako sarbidea emango duen master batean.

Ikasketen amaiera datari buruzkoak:

AZKEN EGUNA	IKASKETA MOTA
2019/01/01	Lizentziaduna, ingeniaria eta arkitektoa edo horien parekoa EEera egokitu gabeko unibertsitate sistemetan. (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2018/01/01	Diplomaduna, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa edo horien parekoa EEera egokitu gabeko unibertsitate sistemetan. (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2018/01/01	180 kredituko graduko ikasketak EEeren eremuan. (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2019/01/01	240 kredituko graduko ikasketak EEeren eremuan. (*Bi urte gehiago desgaitasuna duten pertsonentzat)
2015/01/01	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzen dituen eta osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren alderdi jakin batzuk garatzen dituen otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuan jasotako espezialitatearen bateko titulu ofiziala dutenak.</li> <li>Aurreko ataletan adierazitako ikasketak egiten ari zirelarik 2015/01/01etik 2019/01/01era bitartean 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzen egon direnak.</li> </ul>

Espediente akademikoko batezbesteko gutxieneko notari buruzkoak:

Irakurri deialdiko 8. eta 9. artikulua, titulazio maila bakoitzerako eta jakintza adar bakoitzerako batez besteko gutxieneko nota ikusteko, eta jakiteko nola kalkulatu den.

Tesi zuzendariak bete beharreko baldintzak:

- Eskatzaileek tesi zuzendari bana eduki beharko dute.
- Zuzendariak UPV/EHUrekin izan beharko dute kontratua eskaera aurkezten denetik laguntzak dirauen 4 urteak amaitu arte.
- Zuzendari bakoitzak eskaera bakarra bermatu ahal izango du. Baldintza hori bete ezean, zuzendari horri dagozkion eskaera guztiak baztertuko dira.

**GARRANTZITSUA:** Proposatutako tesien zuzendariak Master eta Doktorego Eskolak irakasle gisa aitortuta egon behar dute hautagaiak doktorego-tesiaren proiektua inskribatuko duen UPV/EHUko doktorego ofizialeko programan. Eskakizun hori betetzen ez bada, ezin izango da UPV/EHUren eta onuradunaren arteko kontratua burutu.

**Eskaerak aurkezteko epea **LEHEN FASEAN:****

**2023ko urtarrilaren 17tik otsailaren 15era 14:00ak arte**

**Eskaera aurkezteko era:**

Eskatzaileak [esteka honetan](#) eskuragarri dagoen inskripzio-inprimakia bete beharko du. Eskabidea berretsi ondoren, eskatzaileak sinatu egin beharko du honako bide hauetakoren baten bidez: DNI-e, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa edo hitzartutako gakoak. Egoitza elektronikoa erregistratzean, sinadura elektronikorik ez dutenei emango zaizkie.

[ESKATZAILAREN GIDA](#)

**Aurkeztu beharreko dokumentuak:**

- Ziurtagiri akademiko pertsonala (pdf formatuan)  
(Atzerriko zentroetan partzialki edo guztiz egindako ikasketen kasuan: titulua ematen duen zentroaren egiaztagiri ofiziala + baliokidetasun agiria (eskabidea Unibertsitate Ministerioaren webgunean eskuragarri):

<https://universidades.sede.gob.es/procedimientos/portada/ida/3513/idp/1030>.

- Hautagaiaren CV-a egoitza elektronikoa azaldutako zantzuen arabera

- Agiriak, hautagaiak matrikula egin duen edo matrikula egiteko asmoa duen Doktorego Programako Batzorde Akademikoak sinatuta:

- Doktorego tesiaren zuzendariaren curriculum vitaearen aldeko ebaluazioaren ziurtagiria.

<https://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:fb2f1ac7-85a9-4648-b03c-dda72f3a6d50/fpu22-evaluaci-n-director-de-tesis.pdf>

- Prestakuntza proiektuaren eta doktorego tesiaren memoriaren aldeko ebaluazioaren ziurtagiria.

<https://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:d43c3bad-4650-4b7d-8466-756a80f0dc55/fpu22-evaluaci-n-proyecto-formativo.pdf>

Zentroetarako dokumentazioa

Tesia zuzentzeko proposatutako pertsonak honako dokumentu hau aurkeztu beharko du Akademi Batzordean:

- Tesi-zuzendariaren eskakizunak betetzen direlako aitortpena:

<https://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:10c252d2-bee8-4be2-85c8-ca23a4d1fc49/fpu22-declaraci-n-director-de-tesis.pdf>

### **Kontsultak egiteko kontaktua:**

Hautagaiak mezu elektronikoa bidez jo beharko dute Unibertsitateen Ministeriora:

- Deialdiari buruzko kontsultak: [solicitantes.fpu@ciencia.gob.es](mailto:solicitantes.fpu@ciencia.gob.es)

### **UPV/EHUko izapidea:**

**Ez** da beharrezkoa izango Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera balidatzea laguntzaren atxikipen erakundearen legezko ordezkari gisa.

### **Informazio gehiago:**

Sakatu [hemen](#).